

"Ilargia eta egutegi biodinamikoa", Sagarrondotik Sagardora ikastaroko saioa larunbatean

Noaua Aldizkaria 2019-05-17 09:36



[USURBIL](#)



38. Sagardo Egunaren bezperan, Alkartasuna Kooperatibak antolaturiko ikastaro praktikoko saio berria Xabier Akizurekin, larunbat goizean: "Ilargia eta egutegi biodinamikoa". Adi datozen ondoko ikastaroei.

Sagarrondotik Sagardora

Alkartasuna Kooperatibak otsailaz geroztik abian duen ikastaroko hurrengo bi saioak asteotan izango dira. Izena aurrez eman ahalko da:

- Maiatzak 18: Ilargia eta egutegi biodinamikoa. Xabier Akizu.
- Ekainak 1: Sagastien udako kimaketa, gatzak eta izurriteak. Aitor Etxeandia.
- Uztailak 13: Fruitu arbolen udako edo begiko txertaketa. Josu Osa.
- Irailak 7: Sagarraren heldutasun analisiak. Etxean sagardoa egiteko hastapenak. Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiain.

Oharra: kimaketa praktikak bertako sagastietan egingo dira.

Izen ematea:

943 361 114
alkartasuna@usurbil.com
alkartasuna.eus

Antolatzailea: Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba.

Laguntzaileak: Sagardoaren Unibertsitatea, Sagarki, Bizi Sagardoa, Usurbilgo Udala.

"Elikagaien etiketak irakurtzen ikastea"

Hitz Aho Udarregi Ikastolako guraso elkarteak antolaturiko hitzaldi praktikoa maiatzaren 22an 17:00etan, Udarregi Ikastolako eraikin gorrian. Alazne Agirrezabalaga dietista-nutrizionistak parte hartuko du hitzorduan.

DYA-ren sorospen ikastaroa

Lehen sorospenen inguruko ikastaroa antolatu du DYA-k Munalurra 26an duen egoitzan, maiatzaren 27tik ekainaren 5era. Saioak goizez izango dira, astelehenetik ostiralera, 10:00-14:00 artean. "Interesa duen edonori zuzendua. Ez da aldez aurreko osasun ezagutzarik behar", berri eman dute DYA-tik. Plaza kopuru mugatua egongo dela ohartarazten duten ikastaroa teoriko-praktikoa izango da. "Lehen sorospenetako oinarriak barneratuko dituzu. Egunerokotasunean aurkitu ahal izango dituzun arrisku egoerei aurre egiten

ikasiko duzu – bihotz biriken suspertzea, zauriak, hausturak, erredurak-, eta larrialdi hauek nola ebatzi erakutsiko zaizu".

Izen emateko eta informazio gehiago jasotzeko:

https://www.dyagipuzkoa.com/eu/event/lehen_sorospenak_usurbil/

943 46 46 22

info@DYAgipuzkoa.com

KzGunera datozen ikastaroak

Maiatzean goizez zabalduko dute, 9:00-13:00 artean. Hemen KzGunera datozen ikastaroak:

-Maiatzak 21-30, 9:00-11:00: "Eman lehenengo pausoak argazki ukituan GIMPEkin".

-Maiatzak 30-31, 11:00-13:00: "Google argazkiak. Antolatu lainoan zure argazki guztiak".

-Ekainak 3-5, 16:00-18:00: "PC, teklatura eta sagua hasieratik nola erabili ikas ezazu".

-Ekainak 6-19, 16:00-18:00: "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi" (erdaraz).

Informazio gehiago:

kzgunea.eus

943 023 684


Kale Nagusia, 37

[Hezkuntza](#)

Erantzun ▼



Usurbigoaren balantzea egiteko bilerak 18:00etan Poixoenan



Gaur itxiko du Antiazak Pirinioetako irailako asteburu pasarako izen ematea



Maitasunetik abiatu dituzte UEU-k, Jakinek eta Udalak antolaturiko jardunaldiak



Maitasunetik abiatu dituzte UEU, Jakin eta Udalaren jardunaldiak Artzabalen

Ikusienak



[Umoretik, txotx eginez eta hasi bezala maitasunez amaitu dituzte UEU-k, Jakinek eta Udalak antolaturiko jardunaldiak](#)

Noaua Aldizkaria uzt 12 [Usurbil](#)



["Maitasuna politikoa da" UEU, Jakin eta Udalaren jardunaldiak zuzenean Berria bidez](#)

Noaua Aldizkaria uzt 11 [Usurbil](#)



[Satelitik-en kontzertua gaur 22:00etan Mikel Laboa plazan: "Errutinatik ihes egiteko beharretik hasi ginen taldean"](#)

Noaua Aldizkaria uzt 11 [Usurbil](#)



[Natali, Berri Txarrak taldearen igandeko Kobetako kontzertuan](#)

Noaua Aldizkaria uzt 12 [Usurbil](#)



[Maitasunetik abiatu dituzte, UEU, Jakin eta Udalaren jardunaldiak Artzabalen](#)

Noaua Aldizkaria uzt 11 [Usurbil](#)



[Narciso Arrillaga, Zubietako alkate berria](#)

Noaua Aldizkaria 2017 uzt 10 [Usurbil](#)